# TESTU BATEGINA

# AZPEITIKO "4. ARANA INGURUNEA" HIRIGINTZA EREMUKO "4.3 ESKLABAK-ITURZULO" AZPIEREMUA URBANIZATZEKO PROIEKTUA

**Eginbidea**: jasota gera dadin agiri hau HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-jko 4.3 "Esklabak-Iturzulo" azpieremurako Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuaren espedienteari dagokiola. Alkatetzak 2021/09/28ko Dekretuz behin betiko onarpena eman zion.
Udalaren idazkariak

Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA

Sustatzailea: LEKU EDER, S.A.
**Arkitektoak:** Javier Corta Echániz; Patxi Corta Echániz; Javier Corta Martínez

# DOKUMENTUAK

**"I." dokumentua - Memoria eta Eranskinak**
"II." dokumentua - Baldintza Agiria
"III." dokumentua - Planoak
"VI." dokumentua - Aurrekontua

Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA

**Eginbidea**: jasota gera dadin agiri hau HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-jko 4.3 "Esklabak-Iturzulo" azpieremurako Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuaren espedienteari dagokiola. Alkatetzak 2021/09/28ko Dekretuz behin betiko onarpena eman zion.
Udalaren idazkariak

# "I." dokumentua MEMORIA ETA ERANSKINAK

**Eginbidea**: jasota gera dadin agiri hau HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-jko 4.3 "Esklabak-Iturzulo" azpieremurako Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuaren espedienteari dagokiola. Alkatetzak 2021/09/28ko Dekretuz behin betiko onarpena eman zion.
Udalaren idazkariak

Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA

Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA

**Eginbidea**: jasota gera dadin agiri hau HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-jko 4.3 "Esklabak-Iturzulo" azpieremurako Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuaren espedienteari dagokiola. Alkatetzak 2021/09/28ko Dekretuz behin betiko onarpena eman zion.
Udalaren idazkariak

# Dokumentuaren aurkibidea

## AURKIBIDEA:

0. AURRETIKOA
1. SARRERA
   - 1.1. Aurrekariak
   - 1.2. Xedea
   - 1.3. Proiektuaren edukia
2. EGUNGO EGOERAREN HIRIGINTZA DESKRIBAPENA
   - 2.1. Kokapena eta mugaketa
   - 2.2. Lurzoruaren topografia eta lehendik dauden eraikinak
   - 2.3. Lehendik dauden azpiegiturak
3. INDARREAN DAGOEN PLANGINTZAREN ZEHAZTAPENAK
4. URBANIZAZIO OBREN DESKRIBAPENA
   - 4.1. Bide antolamendua
   - 4.2. Eraisteak
   - 4.3. Lur mugimenduak
   - 4.4. Fabrika obrak
   - 4.5. Zoruak berdintzea eta zolatzea
5. URBANIZAZIO OBREN DESKRIBAPENA
   - 5.1. Bide antolamendua
6. AZPIEGITURA SAREAK
   - 6.1. Euri uren saneamendua
   - 6.2. Ur beltzen saneamendua
   - 6.3. Ur hornidura eta banaketa
   - 6.4. Gas sarea
   - 6.5. Energia elektrikoa
   - 6.6. Telekomunikazioak
   - 6.7. Argiteria publikoa
   - 6.8. Hiri altzariak
   - 6.9. Bide seinaleak
   - 6.10. Berdeguneak eta landaketak
7. ERAIKUNTZA ETA ERAISTE HONDAKINEN KUDEAKETA (EEH)
8. IRISGARRITASUNARI BURUZKO ARAUDIA

**Eginbidea**: jasota gera dadin agiri hau HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-jko 4.3 "Esklabak-Iturzulo" azpieremurako Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuaren espedienteari dagokiola. Alkatetzak 2021/09/28ko Dekretuz behin betiko onarpena eman zion.
Udalaren idazkariak

IDAZKARITZA

9. OBREN KOSTUA
10. URBANIZAZIO OBRAK HARTZEA
11. KALITATEA KONTROLATZEKO PLANA
12. SEGURTASUN ETA OSASUN AZTERKETA
13. EGIKARITZEKO EPEAK ETA BERMEA
14. ERANTSITAKO DOKUMENTUAK
- I. ERANSKINA.- ARGAZKIA
- II. ERANSKINA.- SANEAMENDUA
- III. ERANSKINA.- ELEKTRIZITATEA
- IV. ERANSKINA.- ARGITERIA
- V. ERANSKINA.- DB-SI-5 JUSTIFIKAZIOA
- VI. ERANSKINA.- IRISGARRITASUNA. HIRIGINTZAKO OZTOPOAK KENTZEKO ARAUDIA BETEKO DELA JUSTIFIKATZEA

**Eginbidea:** jasota gera dadin agiri hau HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-jko 4.3 "Esklabak-Iturzulo" azpieremurako Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuaren espedienteari dagokiola. Alkatetzak 2021/09/28ko Dekretuz behin betiko onarpena eman zion.
Udalaren idazkariak

Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA

**Eginbidea**: jasota gera dadin agiri hau HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-jko 4.3 "Esklabak-Iturzulo" azpieremurako Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuaren espedienteari dagokiola. Alkatetzak 2021/09/28ko Dekretuz behin betiko onarpena eman zion.
Udalaren idazkariak

Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA

- VII. ERANSKINA.- ERAISTEAK
- VIII. ERANSKINA.- ERAIKUNTZA ETA ERAISTE HONDAKINAK (EEH) KUDEATZEARI BURUZKO AZTERKETAK
- IX. ERANSKINA.- AZTERKETA HIDRAULIKOA

Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA

**Eginbidea**: jasota gera dadin agiri hau HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-jko 4.3 "Esklabak-Iturzulo" azpieremurako Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuaren espedienteari dagokiola. Alkatetzak 2021/09/28ko Dekretuz behin betiko onarpena eman zion.
Udalaren idazkariak

Azpeitiko Udala

**Eginbidea**: jasota gera dadin agiri hau HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-ko 4.3 "Esklabak-Iturzulo" azpieremurako Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuaren espedienteari dagokiola. Alkatetzak 2021/09/28ko Dekretuz behin betiko onarpena eman zion.
Udalaren idazkariak

Egiņbidea: jasota gera dadin agiri hau HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-jko 4.3 "Esklabak-Iturzulo" azpieremurako Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuaren espedienteari dagokiola. Alkatetzak 2021/09/28ko Dekretuz behin betiko onarpena eman zion. Udalaren idazkariak
Azpeitiko Udala
IDAZ. Dok. "I"

## 0. AURRETIKOA

Udalak 2014ko abenduaren 3an onartu zuen behin betiko Azpeitiko "4. Arana Ingurunea" hirigintza eremuko "4.3 Esklabak-Iturzulo" azpieremua urbanizatzeko proiektua, Azpeitiko HAPO garatzeko idatzi zena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren autoa:

EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak, 2017/09/08an eman zuen auto baten bidez, Azpeitiko Udalari eskatu eta ardura eman zion gainean eraikinik ez dagoen eremu guztietan Ezkerretegi erreka agerian uzteko Obra Proiektua idazteko eta gauzatzeko, 500 urteko uraldietarako ibilgu egokia emanda errekari.

Epaia betearazteko, AUTO bidez emandako agindu judiziala betez, Azpeitiko Udalak 2017ko azaroan arkitektura estudio honen esku utzi zuen 2014ko abenduaren 3an behin betiko onartutako urbanizazio proiektuaren aldaketa idazteko ardura, "USTEZKO EZKERRETEGI ERREKA AGERIAN UZTEKO ETA HAREN USTEZKO IBILGUA ALDATZEKO" lana gehitzeko, Urak (Ur Agentzia) egindako errekerimendua eta aipatutako agindu judizial hori betetzeko.

Gaur egun, a.20.4.3.2 eta a.20.4.3.3. lursailak eraikitzeko lanak egiten ari dira azpieremuan, eta a.20.4.3.1. lursaileko lanak bukatu dira.

Azpeitiko Udalak jaso du dagoeneko a.20.4.3.1 lursailari lotutako urbanizazioa, 1. FASEAREN barnean dagoena, 1.1, 1.2, 1.3, 1.4 eta 1.5 azpifaseez osatua. Urbanizazio Proiektuaren Aldaketa honetan Udalak dagoeneko jaso duen urbanizazio proiektuaren zatia grafiatu da. Era berean, entregatutako faseetan egindako aldaketak eta aurreikusi diren aldaketa txiki batzuk sartu dira, hala nola:

-Esklaben komentuko eraikinean, c.10.4.3.1 lursailean (hirugarren sektoreko erabilerako lursail finkatua) egiten ari diren zuzkidura bizitokietako obretan planteatutako gainazaleko tratamendua txertatu da, eta urbanizazioaren eta zuzkidura bizitokien aurrean sortutako espazio publikoaren arteko lotura egokitu da.

-Oinezkoentzako pasabide bat sortuko da arrapala baten bidez, eremuaren mendebaldeko biribilgunetik hurbil.

-Transformazio zentroaren kokapena aldatzea.

-Zuzkidura bizitokietarako eraikinerako hartuneak txertatzea. (Hartune horien kostuak proportzionalki esleitu zaizkio zuzkidura bizitokietarako eraikinari).

Azpeitiko "4. ARANA INGURUNEA" hirigintza eremuko "4.3 Esklabak-Ituzulo" azpieremua Urbanizatzeko Proiektuaren Aldaketa hau idatzi da, Ezkerretegi errekaren trazadura eta aire zabalean egikaritzea txertatzeko.

# 1. SARRERA

## 1.1. Aurrekariak

"4. ARANA INGURUNEA" hirigintza eremuko "4.3 Esklabak-Iturzulo" azpieremuko hirigintza gauzatzeko indarrean dagoen plangintzak honako dokumentu hauek ditu:

- Azpeitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Testu Bateginaren behin betiko onarpena, 2013ko uztailekoa.
- Azpeitiko "4. Arana Ingurunea" hirigintza eremuko "4.3 Esklabak-Iturzulo" azpieremuko Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren testu bategina, 2014ko ekainekoa.
- Azpeitiko "4. Arana Ingurunea" hirigintza eremuko "4.3 Esklabak-Iturzulo" azpieremuko Urbanizatzeko Jarduketa Programa, 2014ko uztailekoa.

Eraiste proiektua urbanizazio proiektuaren zati gisa sartu da; izan ere, proiektu horretatik sortutako kostuak, eraistea eta kalte ordainak urbanizazio obren kostuei dagozkie. Hondakinak kudeatzeko azterketaren aurrekontua bi kontu sail bereizitan banatu da: lehena, urbanizazio obrei dagozkien hondakinei buruzkoa, eta bigarrena, antolamendutik kanpo dauden eraikinak eraisteari buruzkoa.

Urbanizazioa egikaritzeko faseak Urbanizatzeko Jarduketa Programan (UJP) aurreikusitako faseekin bat datoz gutxi gorabehera. Honako hauek dira:

**0 FASEA EDO ATARIKOA (EGINA, JADA JASO DU UDALAK)**

**Eginbidea:** jasota gera dadin agiri hau HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-jko 4.3 "Esklabak-Iturzulo" azpieremurako Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuaren espedienteari dagokiola. Alkatetzak 2021/09/28ko Dekretuz behin betiko onarpena eman zion. Udalaren idazkariak
Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA

Egikaritzea prestatzeko espedienteak formulatzea eta onartzea: Birpartzelazio eta Urbanizazio Proiektuak. ATARIKO FASEA bitan banatzen da eta "Urbanizazio faseak" planoan grafiatu dira.

**Hasiera**: Dokumentuak aurkeztea: 4 hilabete, HAPB behin betiko onartzen denetik hasita.

**Bukaera**: Urbanizazio Proiektua eta Birpartzelazio Proiektua aurkeztu direnetik bi urte igarotakoan.

### 1 FASEA (EGINA, JADA JASO DU UDALAK)

Onartutako HAPBren B.1 faseari dagokio, eta orientatzeko baino ez zen zehaztu. 1. FASEA azpifaseetan banatu da, eta bat datoz "Urbanizazio faseak" planoan grafiatutako 1.1, 1.2, 1.3, 1.4 eta 1.5 azpifaseekin.

Hartune sareen egikaritzea elkarren segidako luzapenen bidez programatu da, hurrenez hurrengo faseak eta azpifaseak gauzatu ahala.

### 2. FASEA

Onartutako HAPBren B.2 eta B.3 faseei dagokie, eta orientatzeko baino ez ziren zehaztu. 2. FASEA azpifaseetan banatu da, eta bat datoz "Urbanizazio faseak" planoan grafiatutako 2.1, 2.2 eta 2.3 azpifaseekin.

Fase honetan, ur beltzen eta euri uren saneamendu sareak Loiola etorbidetik igarotzen diren sareekin lotuko dira, eta Ezkerretegi erreka agerian utziko da.

Hartune sareen egikaritzea elkarren segidako luzapenen bidez programatu da, hurrenez hurrengo faseak eta azpifaseak gauzatu ahala.

### 3. FASEA

**Eginbidea:** jasota gera dadin agiri hau HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-jko 4.3 "Esklabak-Iturzulo" azpieremurako Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuaren espedienteari dagokiola. Alkatetzak 2021/09/28ko Dekretuz behin betiko onarpena eman zion.
Udalaren idazkariak
IDAZKARITZA

Onartutako HAPBren B.4 faseari dagokio, eta orientatzeko baino ez zen zehaztu. 3. FASEA azpifaseetan banatu da, eta bat datoz "Urbanizazio faseak" planoan grafiatutako 3.1, 3.2, 3.3 eta 3.4 azpifaseekin.

Hartune sareen egikaritzea elkarren segidako luzapenen bidez programatu da, hurrenez hurrengo faseak eta azpifaseak gauzatu ahala.

## 1.2. Xedea:

0. atalean (AURRETIKOA) adierazi den bezala, Testu Bategin honen xedea da, Azpeitiko Udalak eskatu eta aginduta, Azpeitiko HAPOko “4.3 Esklabak – Iturzulo” azpieremuko Urbanizazio Proiektuan sartzea ustezko Ezkerretegi errekaren trazadura eta aire zabalean egikaritzea.

Ustezko erreka hori agerian uzteari dagozkion lanak Azpeitiko Udalak finantzatu eta gauzatu beharko ditu.

Proiektatutako urbanizazioaren esku hartzearen helburu nagusiak honako hauek dira:

**Bide trazadurari dagokionez:**

4.3 azpieremuko bide sarea Auzaratza edo Loiolabideko biribilgunetik abiatzen da, eta goiko eremuekin (Arana Goikoa, Etxealai eta Santutxo) eta San Migel azpieremuarekin lotzen da. Era berean, tarteko bide bat sortuko da Esklaben komentuaren atzeko aldean, zaku hondoan bukatzen dena, ibilgailuek biratu ahal izateko.

A bide berri horrek eremua garatzeko balio du, eta trazaduraren erdian bitan banatuko da. Komentuaren eraikinaren atzealdean jarraitzen duen tartea A bidearen luzapena izango da eta iparralderantz B bidea sortuko da, eta C bidearen bidez goiko eremuekin

Eginbidea: jasota gera dadin agiri hau HAPO-ko “Arana ingurunea” 4. HE-jko 4.3 Esklabak-Iturzulo” azpieremurako Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuaren espedienteari dagokiola. Alkatetzak 2021/09/28ko Dekretuz behin betiko onarpena eman zion.
Udalaren idazkariak
Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA

(Arana Goikoa, Etxealai eta Santutxo) lotuko da, eta, gainera, Izarraitzerako gurdibideekin lotzeko balio du.

**Espazio libreen tratamenduari dagokionez:**

Loiola etorbidearen aurrealdea udalerriko espazio libreen sistema orokorrean integratutako elementu gisa antolatu da, eta horrek, beste alde batetik, etorbide horri monumentu ardatz gisa balioa ematen lagunduko du.

Era berean, espazio libre hori handitu egingo da Esklaben komentuaren alboetan antolatuko diren espazio libreen toki sistemekin. Finkatu egingo da Auzaratzako eraikinen atzean dagoen parkearen zati bat.

Urbanizazio Proiektua ekainaren 30eko 2/2006 Legean eta 2008-06-26ko 2/2008 Testu Bateginean ezarritakoari egokitu zaio, bai edukiari dagokionez, bai izapidetzeko araubideari eta prozedurari dagokienez, eta Azpeitiko Udalari aurkeztuko zaio, onar dezan.

Eginbidea: jasota gera dadin agiri hau HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-jko 4.3 "Esklabak-Iturzulo" azpieremurako Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuaren espedienteari dagokiola. Alkatetzak 2021/09/28ko Dekretuz behin betiko onarpena eman zion. Udalaren Idazkariak
IDAZKARITZA

**Ezkerretegi erreka agerian uztea:**

Ezkerretegi baserritik hurbil dagoen gune batean bilduko dira errekaren urak eta "4.3 Esklabak Iturzulo" azpieremutik bideratuko dira aire zabalean, Udalak Ezkerretegi erreka eta beste ur osagarri batzuk Urola ibaira husteko egin duen 1.500 mm Ø-ko hodiraino, Loiola etorbidea zeharkatuz.

## 1.3. Proiektuaren edukia:

Urbanizazio Proiektu honek dokumentu hauek ditu:

I. DOKUMENTUA. "MEMORIA ETA ERANSKINAK"
II. DOKUMENTUA. "BALDINTZA AGIRIA"
III. DOKUMENTUA. "PLANOAK"
IV. DOKUMENTUA. "AURREKONTUAK"

Urbanizazio proiektu hau egiteko oinarri gisa, plano topografiko bat egin da, jarduketa eremua eta haren hurbileko ingurua zehazten dituena.

## 2. EGUNGO EGOERAREN HIRIGINTZA DESKRIBAPENA

### 2.1. Kokapena eta mugaketa:

Bizitegitarako garapen berri bat antolatuko da Esklaben komentuaren iparraldean, lau bizitegi eraikin berrirekin. Gaur egungo eraikuntza baldintzetan finkatuko dira Esklaben komentua eta Eliza.

Jarduketa Integratuko Eremu bakarra eratuko da eta Jarduketa Integratuko Eremu hori egikaritze unitate bakar baten barruan dago eta Urbanizazio Proiektu honen xede den eremua da.

"2.6. Urbanizazio obren definizioa" planoan urbanizatu beharreko eremua mugatu da eta komentuaren atarian egin beharreko obrak zehaztu dira.

### 2.2. Lurzoruaren topografia eta lehendik dauden eraikinak:

Eremuaren egungo morfologia, batez ere, lur lauek osatzen dute, eta bertan daude Esklaben komentua eta Eliza, eta eremuaren mendebaldeko eta iparraldeko mugetan % 50eko malda du.

Esklaben komentuko eraikina finkatu egingo da, behar bezala babesteko, bertan hirugarren sektoreko erabilerak ezartzeko eta Elizaren eraikina mantentzeko.

Eremuan antolamenduz kanpokotzat jo diren eraikinak dira Komentuaren atzeko aldean ukuiluetarako eraikinak eta Eguzki-Toki eraikinari atxikitako garajea. Urbanizazio obrei ekin aurretik, antolamenduz kanpo dauden eraikinak eraitsiko dira.

### 2.3. Lehendik dauden azpiegiturak:

**Eginbidea**: jasota gera dadin agiri hau HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-jko 4.3 "Esklabak-Iturzulo" azpieremurako Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuaren espedienteari dagokiola. Alkatetzak 2021/09/28ko Dekretuz behin betiko onarpena eman zion.
Udalaren idazkariak
Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA

Hirigintza eremuan dauden azpiegiturak dentsitate txikiko eraikuntzen eremu finkatu batek izan ohi dituenak dira, eta lehendik dauden azpiegiturak, berriz, Esklaben komentuarekin eta egun erabiltzen ez diren eraikin atxikiekin loturik daudenak dira.

Hona hemen lehendik dauden azpiegituren deskribapena:

### 2.3.1. Saneamendu sareak:

Euri uren sarea: eremuan dagoen sarearen bidez, hustubideak eta Ezkerretegiko bidetik datozenak biltzen dira 400 mm Ø-ko hodi baten bitartez, 600 mm Ø-ko kolektore bikoitzarekin lotu arte.

Ur beltzen sarea: ur beltzen sarearen bidez, "Eguzki Toki", "Izarraitz" eta aldameneko "Auzaratza" eremuko etxebizitzetatik datozen urak biltzen dira, Iñaki Azpiazu kaleko kolektorearekin lotu arte. Dagoen sareak 300 mm-ko Ø du.

### 2.3.2. Ur horniduraren sarea:

Edateko ura hornitzeko sare bat dago Izarraitzetik hurbil, polietilenozkoa, 90 mm Ø-koa.

### 2.3.3. Gas horniduraren sarea:

Aldameneko "Auzaratza", "Eguzki Toki" eta "Izarraitz" guneetako etxeak hornitzen ditu dagoen sareak. Polietilenozkoa da sare hori, 90 mm-ko Ø du eta Iñaki Azpiazu kaletik dator.

### 2.3.4. Elektrizitatea:

Eremu honetan dauden sareak honako hauek dira:

Behe tentsioko aireko sarea: Loiola etorbidetik datorren aireko sarea da, eta Esklaben komentutik igaro eta iparralderantz jarraitzen du, eremua zeharkatuz. Eremu hori desbideratu egin beharko da 1.4 fasean.

Behe tentsioko lurpeko sarea: "Auzaratza" eremu mugakideko etxebizitzak behe tentsioan hornitzeko sarea da.

Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA
**Eginbidea:** jasota gera dadin agiri hau HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-jko 4.3 "Esklabak-Iturzulo" azpieremurako Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuaren espedienteari dagokiola. Alkateak 2021/09/28ko Dekretuz behin betiko onarpena eman zion.
Udalaren idazkariak

Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA

**Eginbidea**: jasota gera dadin agiri hau HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-jko 4.3 "Esklabak-Iturzulo" azpieremurako Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuaren espedienteari dagokiola. Alkateak 2021/09/28ko Dekretuz behin betiko onarpena eman zion. Udalaren idazkariak

Erdi Tentsioko Aireko Sarea: Eremuaren ekialdean bada erdi tentsioko sare bat, baina urbanizazio obrek ez diote eragingo.

#### 2.3.5. Telekomunikazioak:

Telefono sarea: Lurpeko sarea, eremutik gertu dagoen biribilgunetik datorrena, Iñaki Azpiazu kaleko eraikinera iritsi arte.
Euskaltel sarea: Iñaki Azpiazu kaletik datorren lur azpiko sarea, "Auzaratza" eremuko etxeetara eta "Eguzki Toki" etxera iritsi arte.

#### 2.3.6. Argiteria publikoa:

Eremuan dagoen argiteria publikoaren sarea "Ezkerretegi" bideranzko bideko argiak dira.

## 3. INDARREAN DAGOEN PLANGINTZAREN ZEHAZTAPENAK

Urbanizatzeko Jarduketa Programan, eremu honetarako, hirigintza izapideei lotutako Urbanizazio Proiektua ezarri da, eta bertan zehaztu behar da planteaturiko jarduketen programazioa. Urbanizazio proiektu honek xedapen horiek betetzen ditu eta zehatz-mehatz egokitzen da haien aurreikuspenetara, bai zonifikazio xehatuari dagokionez, bai ibilgailuentzako eta oinezkoentzako bideen sestren eta oinplanoen xehetasunen definizio geometrikoari dagokionez.

Urbanizazio obrek Urbanizatzeko Jarduketa Programan adierazitako zehaztapen juridiko, tekniko eta ekonomikoak beteko dituzte beti.

## 4. URBANIZAZIO OBREN DESKRIBAPENA

Esklaben komentuaren iparraldean bizitegi garapen berri bat antolatuko da, sestra gaineko 34.195 m²(s)-ko eraikigarritasun berriarekin. Eraikigarritasun horri gehitu behar zaio beheko solairuan nahitaez garajeetarako erabiliko den eraikigarritasuna, antolamendutik datorrena. Sestra gaineko eraikigarritasun finkatua, Esklaben komentuaren egungo eraikuntza baldintzei dagokiena, Eliza barne. Sestrapeko eraikigarritasuna, Azpeitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko "B.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan zehazten diren irizpide orokorrak aplikatzearen ondoriozkoa.

Loiola etorbidearen aurrealdea udalerriko espazio libreen sistema orokorrean integratutako elementu gisa antolatu da, eta horrek, beste alde batetik, etorbide horri monumentu ardatz gisa balioa ematen lagunduko du.

Esklaben komentuko eraikina finkatu egingo da, behar bezala babesteko, eta hirugarren sektoreko erabilerak ezarri ahal izango dira bertan. Hiri Antolamenduko Plan Orokorra izapidetu zenean, hirigintza hitzarmen bat izapidetu zen, eta haren bidez eskuratu zuen Azpeitiko Udalak eraikin hori.

Azpieremura ibilgailuen sarbidea Auzaratza edo Loiolabideko biribilgunetik abiatzen da, eta goiko eremuekin (Arana Goikoa, Etxealai eta Santutxo) eta San Migeleko azpieremuarekin lotzen da. Era berean, tarteko bide bat sortuko da Esklaben komentuaren atzeko aldean, zaku hondoan bukatzen dena, ibilgailuek biratu ahal izateko.

Bizitegi erabilerako lau lursail eraikigarri eta hirugarren sektoreko erabilerako bi lursail antolatuko dira, eta finkatu egingo dira Esklaben komentuaren eraikina eta Eliza.

Hirigintza Hitzarmenean adostutakoaren arabera, Iturzulo-Esklabak azpieremuko lurren jabe pribatuek eta/edo hirigintza eskubideen titularrek gauzatu eta ordainduko dituzte bertan sortutako urbanizazio karga guztiak, ondoren azaltzen diren salbuespenei kalterik egin gabe.

A.- Azpeitiko Udalak egin eta ordainduko ditu "a 20.4.3.2" eta "a 20.4.3.3" lursailetan aurreikusitako barruko plazaren urbanizazioa eta gainazaleko tratamendua, hargatik eragotzi gabe lursail horietan aurreikusitako eraikinen eta etxebizitzen etorkizuneko esleipendun izango direnei eragitea.

B.- Loiolabide eta San Migel ibarra lotzeko proiektatutako bide berriari dagokionez, eta zehazkiago, "Iturzulo-Esklabak" azpieremuaren barruan igarotzen den zatiari dagokionez, ondoren azaltzen diren irizpideen arabera jokatuko da:

* Bide berri horrek ukitutako lur guztiak, zuzkidura publikoetarako diren gainerakoekin batera, doan lagako zaizkio Udalari, egikaritze unitatean sustatu beharreko birpartzelazio proiektuaren testuinguruan, sartuta dauden unitatean.

* Bide hori proiektatzeko eta gauzatzeko, hitzarmenaren 9. eranskineko planoan ageri diren bi zatiak bereiziko dira. Horren arabera:

**Eginbidea:** jasota gera dadin agiri hau HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-jko 4.3 "Esklabak-Iturzulo" azpieremurako Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuaren espedienteari dagokiola. Alkatetzak 2021/09/28ko Dekretuz behin betiko onarpena eman zion.
Udalaren idazkariak
Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA

- "Iturzulo-Esklabak" azpieremuko jabe pribatuei dagokie planoan ageri den bide horren A zatia urbanizatzeko obrak egitea eta ordaintzea. Azpieremu horretan sustatu beharreko urbanizazio proiektuan egingo da haren proiekzioa.

- Bestalde, plano horretan adierazitako bide horren B zatiko urbanizazio obrak egin eta ordaintzeko betebeharrak San Migel ibarbidean aurreikusitako hirigintza garapenari lotuta daudela ulertuko da. Garapen horren inguruan sustatu beharreko urbanizazio proiektuan egingo da haren proiekzioa.

Jarduketa integratuaren urbanizazioan mantendu egingo dira bai Azpeitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean, bai horren inguruan idatzitako HAPBn eta UJPn adierazitako irizpideak eta helburuak.

## 4.1. Bide antolamendua:

4.3 azpieremuko bide sarea Auzaratza edo Loiolabideko biribilgunetik abiatzen da, eta goiko eremuekin (Arana Goikoa, Etxealai eta Santutxo) eta San Migel azpieremuarekin lotzen da. Era berean, tarteko bide bat sortuko da Esklaben komentuaren atzeko aldean, zaku hondoan bukatzen dena, ibilgailuek biratu ahal izateko.

Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA
Eginbidea: jasota gera dadin agiri hau HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-ko 4.3 "Esklabak-Iturzulo" azpieremuko Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuaren espedienteari dagokiola. Alkateak 2021/09/28ko Dekretuz behin onarpena eman zion. Udalaren idazkariak

A bide berri horrek eremua garatzeko balio du, eta trazaduraren erdian bitan banatuko da. Komentuaren eraikinaren atzealdean jarraitzen duen tartea A bidearen luzapena izango da eta iparralderantz B bidea sortuko da, eta C bidearen bidez goiko eremuekin (Arana Goikoa, Etxealai eta Santutxo) lotuko da, eta, gainera, Izarraitzerako gurdibideekin lotzeko balio du.

A bide berri horrek 6,50 metroko zabalera izango du galtzadan, bi norabidekoa izango da, eta bateriako aparkalekuak izango ditu Auzaratzako blokeen atzealdeko parkerantz (lehendik daudenak finkatuz), eta bi aldeetan ibilbidearen gainerako zatian; ilarako aparkalekuak izango dira a.20.4.3.1 lursailera ematen duen espaloian. Bide horrek ibilgailuentzako sarbidea ematen du Esklaben komentuaren atzeko eraikuntzetara.

B bide berriak 6,00 metroko zabalera izango du galtzadan, bi norabidekoa izango da, eta bateriako aparkalekuak izango ditu bi aldeetan. Bide horrek lotura izango du udalerriko goiko aldeekin lotzen duen C bidearekin, eta Izarraitzerako gurdibideekin lotzeko balioko du.

Bide sareari atxikitako gainazaleko aparkalekuak bide sekzioetan integratutako zerrendetan daude. 175 aparkaleku plaza dira, Auzaratza edo Loiolabideko biribilgunetik azpieremura sartzeko bidean, Esklaben komentuaren atzealdeko bide sortu berrian eta azpieremuko goiko aldeekin lotzeko bidean.

Elbarrientzako aparkaleku erreserba beteko da, guztira 5 plaza (plaza bat 40 edo zatiki bakoitzeko), eta neurriei dagokionez, irisgarritasun baldintzei buruzko 68/2000 Dekretuan eta otsailaren 1eko ETXEB/561/2010 Aginduan xedatutakoaren araberakoak izango dira.

Bide tipologiak honako sekzio hau du:

- **A bide berria (lehen zatia)** (bi norabidekoa)
  - Izarraitz eraikinaren ondoko espaloia ................2,50 m.
  - Galtzada..........................................................6,50 m.
  - Aparkalekua ....................................................4,50 m.
  - Espaloia ..........................................................3,00 m.
  - GUZTIRA...........................................16,50 m.

- **A bide berria (bigarren zatia)** (bi norabidekoa)
  - Eraikinaren ondoko espaloia (a.20.4.3.1)...........4,00 m.
  - Aparkalekua ....................................................2,50 m.
  - Galtzada..........................................................6,50 m.
  - Aparkalekua ....................................................4,50 m.
  - Espaloia ..........................................................3,00 m.
  - GUZTIRA...........................................20,50 m.

- **A bide berria (bigarren zatia)** (bi norabidekoa)
  - Etxebizitzen eraikinaren ondoko espaloia ..........4,50 m.
  - Aparkalekua ....................................................5,00 m.
  - Galtzada..........................................................6,50 m.
  - Aparkalekua ....................................................4,50 m.
  - Komentuaren ondoko espaloia ..........................3,00 m.
  - GUZTIRA...........................................23,50 m.

- **B bide berria** (bi norabidekoa)
  - Eraikinaren ondoko espaloia (a.20.4.3.1)...........3,50 m.
  - Aparkalekuak ....................................................4,50 m.
  - Galtzada..........................................................6,00 m.

Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA
Eginbidea: jasota gera dadin agiri hau HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-ko 4.3 "Esklabak-Iturzulo" azpieremurako Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuaren espedienteari dagokiola. Alkatetzak 2021/09/28ko Dekretuz behin betiko onarpena eman zion. Udalaren idazkariak

| | |
|---|---|
| Aparkalekuak | 4,50 m. |
| Espaloia | 2,00 m. |
| Erreka | 4,50 m. |
| Espaloia (a.20.4.3.2 eta a.20.4.3.3) | 3,50 m. |
| GUZTIRA | 28,5 m. |

Honekin batera doan 2.5 "Lursailaren geometrizazioa, lerrokadurak eta sestrak" planoan adierazi dira urbanizazioa definitzen duten UTM koordenatuak.

## 4.2. Eraisteak:

Urbanizazioko lurrak mugitzeko lanak hasi aurretik, Jarduketa Integratuko Esparruan dauden eraikinak eraitsiko dira. Eraikin horiek antolamendutik kanpo daude, eta honako hauek dira:

**- Eguzki-Toki eraikinari atxikitako garajea**

Eguzki-Toki eraikinari atxikitako garajea eta trastelekua.

**- Komentuaren atzealdean dauden ukuiluak**

Bolumen bakarreko eraikina da, eta erdisotoa, beheko solairua, lehenengo solairua eta teilatupea ditu.

Eraispenei buruzko eranskina doa honekin batera, eraikuntzaren ezaugarriekin eta eraikinen argazkiekin, eta eraikina eraisteko eta materialak tratatzeko erabili beharreko metodoa adierazi dira bertan.

Honekin batera doan EEH eranskinean –Eraikuntza eta Eraiste Hondakinen Kudeaketari buruzko Azterketa–, obretan eta eraispenetan sortuko den hondakin kopuruaren zenbatespena jaso da; hondakin horien bereizketa, biltegiaren aurreikuspena, norakoa, etab., Europako hondakinen zerrendan jasotakoa kontuan hartuta (MAM/304/2002 Agindua), eta ekainaren 26ko 112/2012 Errege Dekretuaren arabera.

Aurreikusitako kostuaren balorazioa jaso da, proiektuaren aurrekontuaren zati dena, bai eta Baldintza Teknikoen Agiriko aginduak ere, hondakin horiek kudeatzeko eragiketei dagokienez.

Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA
**Eginbidea:** jasota gera dadin agiri hau HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-jko 4.3 "Esklabak-Iturzulo" azpieremurako Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuaren espedienteari dagokiola. Alkatetzak 2021/09/28ko Dekretuz behin betiko onarpena eman zion.
Udalaren idazkariak

## 4.3. Lur mugimenduak:

Lur mugimenduek, indusketek eta betelanek egungo morfologia aldatuko dute, San Miguel azpieremuarekin lotzen duen bide berria eta Esklaben komentuaren atzeko tarteko bidea sortzeagatik. Bide hori lurraren egungo kotaren gainetik egongo da; beraz, bidearen zati bat betelanekin egingo da.

Betelanak egiteko, indusketako materialak erabili ahal izango dira, baldin eta Errepide eta Zubien Agiriko zehaztapenak betetzen badituzte.

Horretarako, obrak hasi baino lehen, txosten geotekniko bat egingo da, eta, bertan, lortutako lurren egokitasunari buruzko azterlana jasoko da, lur horiek egokiak diren jakiteko bai urbanizazioa egiteko, bai 1. blokeko betelanetarako.

Multzo osoan aurreikusitako lur mugimenduak 17.899,75 m3-ko bolumena du gutxi gorabehera, lurretako sastrakak garbitzetik eta aire zabaleko indusketetatik etorritakoak, eta beste 1.152,00 m3, Ezkerretegi erreka agerian igaroko den ubidea irekitzetik etorritakoak.

Azpeitiko Udala
...KARITZA
**Egingidea:** jasota gera dadin agiri ha... HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-jko 4.... "Esklabak-Iturzulo" azpieremurako Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuaren espedienteari dagokiola. Alkatetza... 2021/09/28ko Dekretuz behin betik... onarpena eman zion.
Udalaren idazkariak

## 4.4. Fabrika obrak:

Urbanizazio Proiektu honetan aurreikusi da harri lubetazko M1 horma egitea. Horma hori eraiki beharko da A bide berria osatzeko, Esklaben komentuaren atzealdeko fatxadan zehar. Izan ere, bide hori eraikin horretako erdisotoko solairua baino kota handiagoan geratzen da eta patio "ingelesa" sortuko da atzeko fatxada osoan.

Bestalde, Ezkerretegi erreka agerian uzteko, hormigoitu gabeko harri lubeta bat egitea aurreikusi da, guztira 145,00 ml-koa, errekaren ibilguaren sekzio trapezoidala osatzen duena.

### M1 horma

Hormigoitutako harri lubetazko M1 hormak 131,32 metroko luzera du guztira, eta Esklaben komentuaren atzeko aldean dago, eremu horretan A bidea egin ahal izateko.

Harri lubetak altuera aldakorra izango du, 1,69 eta 2,08 metro bitartekoa ageriko zatian.

Lurra induskatzeko eta saneatzeko lanak egin ondoren, zimenduak jarriko dira harri lubeta eraikitzeko zoru egokian, sakonera/zabalera neurri desberdinekin, altueraren arabera. Kanpoko aldeko harri lubetak 1:20 erlazioa izango du eta gutxienez 1,00 m-ko gailurra. Metro horretatik aurrera, handitzen den altuera metro bakoitzeko 25 cm handituko da.

Estradosa material iragazlez beteko da. Harri lubetaren % 30 hormigoia izango da, eta gainerakoa kareharria, 500 eta 800 kg bitarteko harriekin eta Ø 110 mm-ko PVCzko drainatze metxinalekin. Goiko aldean hormigoizko inposta eta babes baranda jarriko dira.

Harri lubeta horren tratamendu estetikoari dagokionez, 1/10eko inklinazioa aurreikusi da ikus ondorioetarako.

Errekako harri lubeta

Hormigoitu gabeko harri lubetak 145,00 ml-ko luzera du guztira, eta erreka bideratzeko sekzio trapezoidala osatzen du.

Harri lubetaren altuera librea 0,80 m-koa izango da agerian dagoen lehen tartean eta 0,50 m-koa bigarrenean. Kareharrizko blokez egingo da, 3H:4V-ko maldak izango ditu barnealderako. Lodiera konstantekoa izango da eta hondoan harrizko lauzak jarriko dira, hormen oinarriak lotzeko, eta haien arteko hutsuneak buztin iragazgaitzez beteko dira.

Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA
Eginbidea: jasota gera dadin agiri hau HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-ko 4.3 "Esklabak-Iturzulo" azpieremuaki Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuarei espedienteari dagokiola. Alkatetzak 2021/09/28ko Dekretuz behin betik onarpena eman zion. Udalaren idazkariak

## 4.5. Zoruak berdintzea eta zolatzea:

Kontuan hartu beharreko trafiko maila dentsitate txikiko hiri arteria batena da.

Zoladura eta bide zoruak

Bide zoruak E1 baldintzak betetzen dituen zabalgune baten gainean jarriko dira, Sustapen Ministerioaren 6.1-IC "Bide zoruen sekzioak eta bide zoruen egitura geruzak" Arauaren arabera.

Bai zoladurak bai bide zoruak Udaleko zerbitzu teknikoek adierazitako jarraibideen arabera egingo dira, eta honako ezaugarri hauek beteko dituzte:

<u>Bideetako eta aparkalekuetako zoladura:</u>

- 25 cm-ko azpioinarri pikortsua
- 15 cm-ko zagor artifiziala
- 6 cm-ko S-12 kareharrizko aglomeratu asfaltikoko agregakina
- Itsaspen garaztada
- 5 cm D-8 asfalto beroa, agregakin ofitikoarekin

<u>Espaloien zoladura:</u>

- 25 cm-ko lurzoru egokia
- 10 cm-ko zagor artifiziala
- 10 cm-ko HA-25 hormigoizko zolata, 15.15.8 mailazoarekin
- 3 cm-ko heltzeko morteroa
- Baldosa hidraulikoa, 45 mm-ko lodierako zerrendekin, 40 mm-ko lodierako zementuzko morteroz hartua, "manta" moduan hedatua, zementuz hautseztatzea, luzitzea, bibratzea eta ondoren garbitzea.

Galtzadaren alboko perimetroan, hormigoizko 60 cm-ko sakanguneak jarriko dira “in situ” galtzadaren eta aparkalekuaren artean, 2-3 cm-ko sakonerarekin; eta espaloiaren ondoan 30 cm-ko areka, galtzada espaloiaren kontra iristen denean.

Galtzadako zintarriak granitozkoak izango dira, zerraz moztuak eta alde batean alaka izango dute, ageriko aldeetan garreztatuak. Lorategiko zintarriak kareharrizkoak izango dira, 20x10 alaka bikoitzarekin.

Espaloien zoladura material zehatzez osatuko da, oinezkoentzako pasabideei dagokienez. Oinezkoen pasabideak goratuak izango dira eta espaloiaren altuerari eutsiko diote.

Elbarrientzako aparkalekuen eta espaloiaren arteko elkargunea asfaltoarekin berdinduko da aurrealdean eta albo batean, bi zoladuren arteko kota aldeak saihesteko.

Bideen zeharkako malda % 2 - % 3 artekoa izango da.

Bideak egiteko prozesuan, asfaltozko geruza zabaldu aurretik, trinkotze kontrolak egingo dira karga plaken harraldiekin udal teknikariak zehaztutako puntuetan, eta 100 muga gainditu beharko da bigarren zikloan, zikloen arteko erlazioa E2/E1 eta 2,20 indizea kasu guztietan.

**Eginbidea:** jasota gera dadin agiri ha
HAPO-ko “Arana ingurunea” 4. HE-jko 4.
“Esklabak-Iturzulo” azpieremurak
Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuare
espedienteari dagokiola. Alkatetza
2021/09/28ko Dekretuz behin betik
onarpena eman zion.
Udalaren idazkariak
Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA

**Eginbidea:** jasota gera dadin agiri hau
HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-jko 4.3
"Esklabak-Iturzulo" azpieremuako
Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuaren
espedienteari dagokiola. Alkatetzak
2021/09/28ko Dekretuz behin betiko
onarpena eman zion.
Udalaren idazkariak
…ko Udala
IDAZKARITZA



# 5. EZKERRETEGI ERREKA AGERIAN UZTEKO HARTUTAKO IRTENBIDEAREN DESKRIBAPENA

Irtenbidea da Ezkerretegi baserritik hurbil dagoen gune batean biltzea errekaren urak eta "4.3 Esklabak-Iturzulo" azpieremutik aire zabalean bideratzea, Udalak Ezkerretegi erreka eta beste ur osagarri batzuk Urola ibaira husteko egin duen 1.500 mm Ø-ko hodiraino, Loiola etorbidea zeharkatuz.

Diseinurako kontuan hartu dira behin betiko onartutako 4.3 Esklabak-Iturzulo azpieremuaren Plan Berezia eta Urbanizazio Proiektua.

Plan Bereziaren arabera, erreka hori eraikina dagoen tokian hasiko da eta, ondoren, elizaren eta Esklaben komentu zaharraren inguruetan sortutako parkea zeharkatuko du, dagoeneko egina dagoen 1500 mm Ø-ko hodian hustu arte.

Eraikinak, bidea, espaloiak eta aparkalekua dauden lehen zati honetan berdegune bat diseinatu da espaloiaren eta aparkalekuen artean eraikuntzan zehar, eta berdegune horren barruan integratu da erreka.

Erreka hori hormigoitu gabeko kareharrizko harri lubetaz eraikiko da bi aldeetan, eta hondoan, berriz, buztin iragazgaitza ezarriko da eta harrizko lauzak han eta hemen sakabanatuak.

Errekaren eskema hori eten egingo da, haren gainean bidegurutzeak egiteko eta azpieremuko bide nagusia zeharkatzeko. Aire zabaleko errekaren etenaldi horretarako 1000 mm Ø-ko hodia erabiliko da.

Parkearen eremuan, berriz ere aire zabaleko sekzioa izango du errekak, jada egina dagoen 1500 mm Ø-ko hodian hustu arte.

Eraikina dagoen aldean, aire zabaleko sekzioan, aparkalekuetaraino eta espaloietaraino berdegune bat aurreikusi da, ezpondaduna. Bertan, erreka babesteko landaresia eta inguruko erriberako zuhaitzak landatuko dira.

Pasabideetan baranda jartzea aurreikusi da, errekara ez erortzeko.

Parkearen eremuan, lehendik dagoen berdegunean txertatuko da erreka.

**Eginbidea**: jasota gera dadin agiri ha
HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-jko 4.
"Esklabak-Iturzulo" azpieremurak
Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuare
espedienteari dagokiola. Alkatetzal
2021/09/28ko Dekretuz behin betik
onarpena eman zion.
Udalaren idazkariak



Azpeitiko U
IDAZKARI

Bigarren zati horretako aire zabaleko errekan zehar ere lehen zatirako adierazitako landaresi eta zuhaitz berdinak jarriko dira.

## ERREKAREN AHALMEN HIDRAULIKOAREN JUSTIFIKAZIOA

Errekaren justifikazio hidraulikoari dagokionez, "4.3 Esklabak-Iturzulo" azpieremuko Hiri Antolamenduko Plan Berezian aurkeztutako eranskinean justifikatu zen. Eranskin hori "URA" Uraren Agentziak 2014ko urtarrilaren 28an egindako txostenaren ondorioak betetzeko aurkeztu zen, eta "URA" erakundeak aldeko iritzia eman zion 2014ko apirilaren 7an.

Eranskin horretan aurreikusi zen 1200 mm Ø-ko hodi baten bidez hustea jariatze urak. Hodi horrek jasotzen ditu mendi hegaleko urak, bai eta urbanizaziotik bertatik datozenak ere (B bidea). A bidearen eta B bidearen elkargunean hodia 1500 mm Ø-koa izango da, Loiola etorbidearekiko paraleloan doan ur beltzen hodi orokorraren elkargunera iristen den gainezkabide putzutik igarota, eta puntu horretatik aurrera zuzenean Urola ibaira isuriko dira euri urak. Gainezkabide putzutik, era berean, 800 mm Ø-ko bigarren hodi bat abiatuko da, aurreikusitako kota gainditzen denean martxan jarriko dena. Hodi hori 600 mm Ø-ko bi hodiekin lotuko da eta Iñaki Azpiazu kaletik igaroko dira Loiola etorbidearen bat egiten duten punturaino. Puntu horretan, 1000 mm Ø-ko hodi bihurtuko da, eta Banco Santander izeneko eraikinaren inguruetan Urola ibaira hustuko ditu urak.

Urbanizazio Proiektua Aldatzeko dokumentu honetan 1200 mm Ø-ko hodi hori mantenduko da hondoko hodi gisa, eta gainazalera aterako da ibilgu naturalizatu baten bidez; ibilgu hori nahikoa izango da azpieremuko tarte osoan ohiko uraldiak husteko. Aparteko uraldietarako gainezkabide edo isurbide gisa baino ez da erabiliko aipatutako 1200 mm Ø-ko lurperatutako hodi hori.

Era berean, honekin batera doa "IX. Eranskin" gisa, Azterketa hidraulikoa eta hidrologikoa.

## DOIKUNTZAK URBANIZAZIOAREN DISEINUAN

Ezkerretegi erreka ibilgu naturalizatu baten bidez aterako da argitara, Azpieremuko tarte osoan ohiko uraldiak husteko adinakoa, planoetan ageri den bezala.

Ibilguaren trazadura zertxobait aldatu da urez beheitiko zatian, eskuineko ertzaren eta Esklaben komentuaren eraikinera sartzeko proiektatutako bidearen arteko tartea handitzeko.

Planoetan grafiatu dira Ezkerretegi erreka, ohiko euri urak bilduko dituena, eta 1200 mm Ø-ko lurpeko hodia, aparteko uraldietarako gainezkabidea izango dena. Gainezkabide kutxetatik abiatuta proiektatu den 1500 mm Ø-ko hodi zatia egina dago gaur egun planoetan adierazten den lekuan.

Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA

Eginbidea: jasota gera dadin agiri ha
HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-jko 4.
"Esklabak-Iturzulo" azpieremurak
Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuar
espedienteari dagokiola. Alkatetzal
2021/09/28ko Dekretuz behin betik
onarpena eman zion.
Udalaren idazkariak

## 5.1. ERREKA AGERIAN UZTEKO EGIN BEHARREKO OBRAK

Erreka agerian uzteko obrak Azpeitiko Udalak egingo eta finantzatuko ditu.

### Lur mugimenduak:

Ibilgua egiteko eta hodia ezartzeko indusketa lanak, ibilbidean zehar, urak Loiola etorbidearen azpitik gurutzatu eta Urola ibaian husteko Udalak egindako hodiarekin bat egin arte.

Ibilbide osoa 208 ml-koa da eta aurreikusitako lur mugimenduaren bolumena 1152 m3 ingurukoa, Ezkerretegi agerian igaroko den ubidea irekitzetik etorritakoak.

### Fabrika obrak:

Errekako harri lubeta

Hormigoitu gabeko harri lubetak 145,00 ml-ko luzera du guztira, eta erreka bideratzeko sekzio trapezoidala osatzen du.

Harri lubetaren altuera librea 0,80 m-koa izango da agerian dagoen lehen tartean eta 0,50 m-koa bigarrenean. Kareharrizko blokez egingo da, 3H:4V-ko maldak izango ditu barnealderako. Lodiera konstantekoa izango da eta hondoan harrizko lauzak jarriko dira, hormen oinarriak lotzeko, eta haien arteko hutsuneak buztin iragazgaitzez beteko dira.

**1000 mm Ø-ko hodia espaloiaren eta bidearen azpian (4.3 "Esklabak-Iturzulo" azpieremuko Urbanizazio Obren barruan egin da, eta obra horiek dagoeneko jaso ditu Udalak)**

1000 mm Ø-ko hodi bat egin da 63 ml-ko luzeran 18 metroko eta 15 metroko bi zatien artean, eta 30 ml espaloiak eta Esklaben komentuaren atzeko bidea zeharkatzeko.

Hodia 10 cm eskaseko lodiera duen hormigoi pobrezko oinarrian bermatuko da, eta haren azpian 20 cm-ko oinarri pikortsua jarriko da, behar bezala trinkotua.

Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA
Egiinbidea: jasota gera dadin agiri hau HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-jko 4.3 "Esklabak-Iturzulo" azpieremuko Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuari dagokiola. Alkatetza espedienteari 2021/09/28ko Dekretuz behin betiko onarpena eman zion.
Udalaren idazkariak

## Loratagiak:

### Ezkerretegi errekaren ubidean zehar

Errekako ezpondetan eta ertz bakoitzean dagoen zerrenda berdean eremu horretako ohiko zuhaixka espezieak landatuko dira, hala nola haltza, lizarra, hurritza, sahatsa eta intsusa, bai eta urki ilara bat ere (Betula Pendula), errekaren lerrokadura markatuz, eta landaresi bat errekaren ertz osoan, oinezkoak eror ez daitezen.

Puntu jakin batzuetan erreka ertzeko baranda jarriko da, erortzeko arriskuaren aurrean segurtasuna bermatzeko.

# 6. AZPIEGITURA SAREAK

## 6.1. Euri uren saneamendua:

Gaur egun, euri uren sarea egina dago "Entregatutako faseak" deitutako mugaren barruan, bai eta 1500 mm Ø-ko hodia ere, Loiola etorbidetik hurbil dagoen lotuneraino.

Deskribapen orokorra

Euri uren sarearen eskema orokorra kolektore orokor bat da nagusiki, eremua iparraldetik hegoaldera zeharkatzen duena, eta hark biltzen ditu "Ezkerretegi" bidetik datozen urak nahiz inguruko eraikinetako hustubideetatik eta estalkietatik datozen urak, Urola ibaian isurtzen diren arte. Kolektore nagusi horretara isuriko dira A bidetik datozen urak ere, bide horretan dauden hustubideetako eta eraikinetako urak biltzen baititu.

Sarearen eskema dagozkion planoetan grafiatu da. Kanalizazioa erabat lurpekoa da, espaloien edo galtzaden azpitik igarotzen da eta ez ditu lursail pribatuak ukitzen.

Erregistro putzuak hormigoizkoak izango dira, hainbat diametrokoak, eta estalkia burdinurtu artikulatu indartukoa, 80 cm Ø-koa. Etxeko kutxetak, 40x40 neurrikoak, altuera aldakorrekoak eta PVC indartuko estalki hermetikoa, beharrezkoa denean.

Sortuko diren "A" eta "B" bide berrien trazadura dela eta, aurreikusi den faseetako programazioaren ondorioz, euri urak honela hustea aurreikusi da:

- "Ezkerretegi" bidearen inguruko euri urak biltzeko sarearen ordez, estali gabeko 40/40ko erretena jarriko da behin-behinean, komentuaren hormari atxikia, behin-behineko hodiarekin lotu arte, 1.1 eta 1.2 faseak egin ahal izateko.
- Euri uren saneamendua, 1.1, 1.2 eta 1.3 urbanizazio faseetan, "Eguzki Tokitik" hurbil dagoen kolektore bikoitzera (2xØ600) egingo da.

Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA
Eginbidea: jasota gera dadin agiri hau HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-jko 4.3 "Esklabak-Iturzulo" azpieremuaren Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuaren espedienteari dagokiola. Alkatetzak 2021/09/28ko Dekretuz behin betiko onarpena eman zion.
Udalaren idazkariak

- Euri uren saneamendu sareko 1200 mm Ø-ko kolektorea egingo da, Ezkerretegi bidetik datozen euri urak bilduko dituena. Kolektore hori "B" bide berritik joango da A bidetik datorren kolektorearekin lotzeko putzuraino. Puntu horretatik aurrera, hodia 1500 mm Ø-koa izango da, gainezkabide putzura iritsi arte. Putzu horretatik Eguzki Toki eraikinetik gertu kokaturiko 600 mm Ø-ko 2 hodiko kolektore bikoitzeraino lotuko da, 800 mm Ø-ko hodiaren bidez.
- Gainezkabide putzutik euri uren saneamendurako 1500 mm Ø-ko hodia egingo da Loiola etorbidea gurutzatu aurreko putzuraino. Putzu horretan bilduko dira Esklaben komentuaren aurreko eremua zeharkatzen duen erretenetik datozen urak. Puntu horretatik aurrera, Udalak egingo du kanalizazioa, hitzarmenaren arabera, Urola ibaira isuri arte.
- A bidera isurtzen diren euri urak bide beretik doan 500 mm Ø-ko hodi batean bilduko dira, B bideko kolektore nagusiarekin lotu arte.

**Eginbidea:** jasota gera dadin agiri ha
HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-jko 4.
"Esklabak-Iturzulo" azpieremurak
Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuare
espedienteari dagokiola. Alkatetzak
2021/09/28ko Dekretuz behin betik
onarpena eman zion.
Udalaren idazkariak
Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA

Zangak:

1,80 metrotik gorako altuerak dituzten zangak zurkaiztuak izango dira.

Erregistro putzuak

Altuera aldakorreko erregistro putzuak diseinatu dira iskin puntu guztietan eta lehendik dauden sareetarako hartuneak edo loturak aurreikusten direnetan. Bisitatzeko modukoak izango dira, burdinurtu indartuko estalkia izango dute eta 50 m-tik beherako distantziak.

Erregistro putzuak hormigoizkoak izango dira, diametro desberdinekoak, sakoneraren eta hartune kopuruaren arabera. Estalkiak burdinurtu artikulatu indartukoak izango dira, 60 cm Ø-koak. Putzu horien neurriak planoetan zehaztu dira.

Erregistro putzuak eta sakanguneko hustubideak bat egiten duten puntuetan, aurreikusi da putzuaren estalkiaren ordez 50 x 50 cm-ko sareta hustubidea jartzea.

Kutxetak:

Etxe kutxetak aurreikusi dira, 0,40x0,40 m-ko barnea dutenak, antolamenduko eraikinetarako hartuneetan. Kutxeta horietatik PVCzko 250 mm Ø-ko zatiak aterako dira deskribatutako putzuekin lotzeko.

Materialak:

Udal zerbitzuek baimenduko dute sarea eta haren elementuak eraikitzeko erabili beharreko materiala.

Areketako edo plazetako hustubideak "avón" motakoak izango dira, 30x40 mm-koak.

Galtzada, sakangune eta oinezkoentzako guneetako zintarrietan sareta hustubideak eta burdinurtuzko markoa aurreikusi dira, kasuan kasuko kolektorearekin lotuko direnak.

PVCzko hodiak aurreikusi dira 400 mm Ø-raino, eta hormigoizkoak, berriz, 500 mm Ø-koak edo handiagoak diren hodietarako. Hormigoian definitutako diametroak barneko diametroei dagozkie.

Kutxeten estalkiak burdinurtu nodularrekoak izango dira, eta hartuneko kutxetak, espaloian badaude, C-250 motakoak. Erregistro putzuetan D-400 mota erresistenteko estalkiak erabiliko dira gutxienez.

Honekin batera doa II. eranskina – SANEAMENDUA. Egiaztatu behar da kolektoreek dituzten diametroekin eta lurzoruak dituen maldekin, fluidoaren abiadura ez dela izango 3 m/s-tik gorakoa eta ur xaflaren sakoneraren altuera ez dela % 75etik gorakoa izango.

## 6.2. Ur beltzen saneamendua:

Gaur egun, ur beltzen sarea egina dago "Entregatutako faseak" deitutako mugaren barruan, bai eta 315 mm Ø-ko hodia ere, Loiola etorbidetik hurbil dagoen kolektore nagusiaren lotuneraino.

Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA

**Eginbidea:** jasota gera dadin agiri hau HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-jko 4.3 "Esklabak-Iturzulo" azpieremurako Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuaren espedienteari dagokiola. Alkatetzak 2021/09/28ko Dekretuz behin betiko onarpena eman zion.
Udalaren idazkariak

Deskribapen orokorra

Sarearen eskema orokorra A eta B bideetan dauden kolektoreek osatzen dute nagusiki. Kolektore horiek biltzen dituzte urbanizazioan aurreikusitako eraikin berrietatik datozen hondakin urak.

Lehendik dagoen sarera isurtzeko bi puntu izango dira:

- a.20.4.3.1 lursailetik datorren sareko isurketa puntua Eguzki Toki eraikinetik hurbil egotea aurreikusi da.

- A.20.4.3.2, a.20.4.3.3 eta a.20.4.3.4 lursailetatik datorren sarea Loiola etorbidearen paraleloan doan kolektore orokorrera isuriko da.

Sarearen eskema dagozkion planoetan grafiatu da, eta, funtsean, PVCzko 315 mm Ø-koa izatea aurreikusi da. Kanalizazioa erabat lurpekoa da, espaloien edo galtzaden azpitik igarotzen da eta ez ditu lursail pribatuak ukitzen.

Erregistro putzuak hormigoizkoak izango dira, hainbat diametrokoak, eta estalkia burdinurtu artikulatu indartukoa, 80 cm Ø-koa. Etxe kutxetak 40x40 neurrikoak dira, altuera aldakorrekoak eta PVC indartuko estalki hermetikoa izango dute beharrezkoa denean.

Kutxeten diseinuan eta sarearen diametroaren kalkuluan aintzat hartuko da ur kontsumorako kontuan hartzen den emaria.

Zangak:

1,80 metrotik gorako altuerak dituzten zangak zurkaiztuak izango dira.

Erregistro putzuak:

Altuera aldakorreko erregistro putzuak diseinatu dira iskin puntu guztietan eta lehendik dauden sareetarako hartuneak edo loturak aurreikusten direnetan. Bisitatzeko modukoak izango dira, burdinurtu indartuko estalkia izango dute eta 50 m-tik beherako distantziak.

Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA
**Eginbidea:** jasota gera dadin agiri hau HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-jko 4.3 "Esklabak-Iturzulo" azpieremuko Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuari dagokiola. Alkatetzaren 2021/09/28ko Dekretuz behin betiko onarpena eman zion.
Udalaren idazkariak

Erregistro putzuak hormigoizkoak izango dira, diametro desberdinekoak, sakoneraren eta hartune kopuruaren arabera. Estalkiak burdinurtu artikulatu indartukoak izango dira, 80 cm Ø-koak. Putzu horien neurriak planoetan zehaztu dira.

Altuera aldakorreko erregistro putzuak diseinatu dira iskin puntu guztietan eta lehendik dauden sareetarako hartuneak edo loturak aurreikusten direnetan. Bisitatzeko modukoak izango dira, burdinurtu indartuko estalkia izango dute eta 50 m-tik beherako distantziak. Putzuen arteko sareak PVCzko 315 mm Ø-koak izango dira eta gutxieneko maldak % 2koak.

Kutxetak:

Etxerako kutxetak aurreikusi dira, 0,40x0,40 m-ko barnea dutenak, antolamenduko eraikinetarako hartuneetan. Kutxeta horietatik PVCzko 250 mm Ø-ko zatiak aterako dira deskribatutako putzuekin lotzeko.

Materialak:

Udal zerbitzuek eta Gipuzkoako Urak erakundeak baimenduko dituzte espresuki sarea eta haren elementuak eraikitzeko erabili beharreko materiala.

Kutxeten estalkiak burdinurtu nodularrekoak izango dira, eta hartuneko kutxetak, espaloian badaude, C-250 motakoak. Erregistro putzuetan D-400 mota erresistenteko estalkiak erabiliko dira gutxienez.

Honekin batera doa II. eranskina – SANEAMENDUA. Egiaztatu behar da kolektoreek dituzten diametroekin eta lurzoruak dituen maldekin, fluidoaren abiadura ez dela izango 3 m/s-tik gorakoa eta ur xaflaren sakoneraren altuera ez dela % 75etik gorakoa izango.

## 6.3. Ur hornidura eta banaketa:

Gaur egun, ur hornidura sarea egina dago "Entregatutako faseak" deitutako mugaren barruan, a.20.4.3.1. blokeko etxebizitzak urez hornitzeko.

Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA
Eginbidea: jasota gera dadin agiri hau HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-jko 4.3 "Esklabak-Iturzulo" azpieremurako Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuaren espedienteari dagokiola. Alkatetzaren 2021/09/28ko Dekretuz behin betiko onarpena eman zion.
Udalaren idazkariak

Eremu honetan edateko uraren hornidura bermatzeko egingo diren lanak honako hauek dira:

- FD100 Ø-ko sare berria trazatzea bideetan zehar eta atari bakoitzerako hartuneak.
- Hidrante berriak eta sute ahoa jartzea.

Bi lotura puntu aurreikusi dira: bat Iñaki Azpiazu kalean dagoen sarera eta bestea Loiola etorbidera, FD150 Ø-ko sarearen bidez, Auzaratza eta Esklaben eraikina mugatzen dituen landaresiaren paraleloan, FD200 Ø-ko sarearekin lotu arte.

Suteen aurkako 5 sute aho eta kaleak garbitzeko hiru ur hartune aurreikusi dira. Sute ahoak 100 mm-ko motakoak izango dira eta suhiltzaile taldeak erraz iristeko moduko lekuetan jarri dira, ongi seinaleztatuak, eta elkarren artean 200 metroko distantzian gehienez. Bermatua dago gertuen dauden bi sute ahok bi orduz batera funtzionatzea aldi berean, minutuko 1.000 litroko emariarekin, eta gutxienez 10 m.c.a.-ko presioarekin.

Azpeitiko Udala
...ARITZA

**Eginbidea:** jasota gera dadin agiri hau HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-jko 4.3 "Esklabak-Iturzulo" azpieremuaren Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuarer espedienteari dagokiola. Alkatetzar 2021/09/28ko Dekretuz behin betiko onarpena eman zion.
Udalaren idazkariak

<u>Materialak:</u>

Udal zerbitzuek espresuki baimenduko dute sareko banaketa hodietan, lotune piezetan eta gainerako elementuetan erabili beharreko materiala. Azpeitiko Udalak baimenduko ditu, halaber, hidranteen eta sute ahoen ereduak.

Lotura puntuetan balbulak kokatzeko berariazko kutxetak aurreikusi dira. Hormigoizkoak izango dira, "in situ" eginak, eta sartzeko pateak eta burdinurtu nodularreko estalkia izango dituzte. Une oro, udal zerbitzuek eta ur zerbitzuko mantentze lanetako langileek ezarritako zehaztapenak beteko dira.

Jarriko diren sute ahoak 100 mm motakoak izango dira, izozteak eta ekintza mekanikoak jasateko prestatuak, eta hiru irteera izango dituen zutabe batean amaituko dira. Irteera horietako batek 100 mm-ko diametroa izango du eta beste biek 70 mm-koa. 100 mm-ko irteerak Storz modeloko errakorra izango du, eta 70 mm-koek, berriz Barcelona motakoa. Sare orokorrera konektatuko dira sute aho bakoitzerako 100 mm-ko hodi independentearen bidez, eta uhate motako ixteko balbula izango dute.

## 6.4. Gas sarea:

Gaur egun, gas sarea egina dago "Entregatutako faseak" deitutako mugaren barruan, a.20.4.3.1. blokeko etxebizitzak gasez hornitzeko.

Naturgasen gaur egungo sarea Eguzki Toki eta Izarraitz eraikinetatik gertu igarotzen da, eta sare bat jarriko da, PE 90 Ø-koa, zentralizazio guztiak hornitzeko.

Era berean, enpresa hornitzaileak beharrezkotzat jotzen badu, eremuan aurreikusitako sare berria Loiola etorbideko sarearekin lotuko da, eremua hegoalderantz gurutzatuz.

Obren enpresa esleipendunak obra zibila egingo du, eta enpresa hornitzaileak, berriz, hodia jarriko du eta obra mekanikoa egingo du.

Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA
**Eginbidea:** jasota gera dadin agiri hau HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-ko 4.3 "Esklabak-Iturzulo" azpieremurako Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuaren espedienteari dagokiola. Alkatetzak 2021/09/28ko Dekretuz behin betiko onarpena eman zion.
Udalaren idazkariak

## 6.5. Energia elektrikoa:

Enpresa hornitzaileari kontsulta egin ondoren, honako lan hauek egin beharko dira eremuko eraikin berriak elektrizitatez hornituko direla bermatzeko:

- Eremua iparraldetik hegoaldera zeharkatzen duen behe tentsioko aireko linea kendu.
- 1.1, 1.2 eta 1.3 faseetako energia elektrikoaren hornidura Loiola-Bide Transformazio Zentrotik egingo da.
- Tentsio ertaineko lurpeko lineak kanalizatu eta jarri beharko dira, enpresa hornitzaileak definitutako lotura puntuaren eta transformazio zentro berriaren artean.
- Transformazio zentro berri bikoitza eraiki eta muntatu.
- Behe tentsioko lurpeko lineak kanalizatu eta jarriko dira transformazio zentro berriaren eta jarri beharreko babes kutxa orokorren artean.

Transformazio zentro berriak urbanizazio berriko eraikinak eta aurreikusitako argiteria publikoa elikatuko ditu.

Obrak egiteko, kontuan hartuko dira enpresa hornitzailearen arauak, eta indarrean dauden araudiak (behe tentsioari buruzkoa, arau teknologikoak, etab.)

Gaur egun, erdi tentsioko sare elektrikoa egina dago Loiola etorbidearen hegoaldeko lotunetik proiektatutako transformazio zentroraino, eta hori ere egina dago. Bestalde, a.20.4.3.1 blokea hornitzeko behe tentsioko sarea egin zen etxebizitza horiek entregatu ahal izateko.

Honekin batera doan III. eranskinean - ELEKTRIZITATEA, justifikatu da eremuan aurreikusitako elektrizitate sarea.

Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA

**Eginbidea:** jasota gera dadin agiri hau HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-jko 4.3 "Esklabak-Iturzulo" azpieremurako Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuaren espedienteari dagokiola. Alkateak 2021/09/28ko Dekretuz behin betiko onarpena eman zion.
Udalaren idazkariak

## 6.6. Telekomunikazioak:

Operadoreekin hitz egin ondoren, arlo bakoitzean egin beharreko lanak honako hauek izango dira:

Telefónica:

Gaur egun bada sare bat Auzaratzako blokeetara iristen dena. Sare horretatik 2Ø125 diametroko kanalizazioa egingo da lursailetako ICT kutxetetaraino.

Euskaltel:

Sare berria lehendik dagoenetik abiatuko da, Auzaratzako blokeetatik hurbil, eta 2Ø125 diametroko kanalizazioaren bidez iritsiko da planteatutako lursailetako ICT kutxetetaraino.

Udal sarea

2Ø125 diametroko sarea aurreikusi da, Telefónicaren eta Euskaltelen sarearekiko paraleloan eremu osoan, eremuaren mugatik hasita.

Gaur egun, telekomunikazio sarea egina dago "Entregatutako faseak" deitutako mugaren barruan, a.20.4.3.1. blokeko etxebizitzei zerbitzua emateko.

## 6.7. Argiteria publikoa:

Transformazio zentro berriaren ondoan jarriko den maniobra koadro berritik abiatuko da argiteria publikoaren sarearen trazadura.

Gaur egun, argiteria publikoaren sarea egina dago “Entregatutako faseak” deitutako mugaren barruan.

Lehenengo urbanizazio faseetan (1.1, 1.2 eta 1.3) Izarraitz eraikinean eta Auzaratzako blokeetan dagoen searearekin lotuko da sarea.

Argi puntuak aipatutako maniobra koadrotik elikatuko dira, PVCzko hodiekin lurpeko kanalizazioaren bidez. Koadro horrek fluxu murriztailea izango du energia aurrezteko, bai eta programazio kontrola ere, erlojuaren eta eguzkiaren bidez piztu eta itzaltzeko. Behe tentsioko kanalizazioa lurpetik joango da. Zirkuituetako punturik txarrenetan tentsio erorketa ez da inoiz % 3tik gorakoa izango.

Aurreikusitako argiak honako hauek dira:

BIDEETAN: Philips etxeko LUMA 1 (led) modeloko argia, 8 metroko kono enborreko zutabean, altzairu galbanizatu margotuan edo antzekoan.

PASEALEKUETAN: Philips etxeko LUMA 1 (led) modeloko argia, 4 metroko kono enborreko zutabean, altzairu galbanizatu margotuan edo antzekoan.

Lurpeko kanalizazioak, funtsean, espaloien ertzetan zehar aurreikusi dira, 110 mm-ko diametroko hodiekin, dentsitate handiko T.P.C. polietilenozkoak, eta Behe Tentsioko Araudiaren Jarraibideak beteko dira kableatuarentzat.

Argietarako hormigoizko zimendu oinarria zutabearen altueraren araberakoa izango da, eta ainguratzeko pernioak eta kableen sarrera eta irteera hodiak izango ditu.

Honekin batera doa IV. eranskina - ARGITERIA. Bertan jaso dira Philips etxeak egindako argi kalkuluak eta argien tentsio erorketak erakusten dituzten kalkulu elektrikoak.

## 6.8. Hiri altzariak:

Azpeitiko Udalak berariaz baimendu beharko ditu hiriko altzariak eta elementu osagarriak, hala nola, bankuak, paperontziak, edukiontziak, baranda, txorkoak eta abar.

Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA
**Eginbidea:** jasota gera dadin agiri hau HAPO-ko “Arana ingurunea” 4. HE-ko 4.3 “Esklabak-Iturzulo” azpieremurako Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuari espedienteari dagokiola. Alkatetzak 2021/09/28ko Dekretuz behin betiko onarpena eman zion. Udalaren idazkariak

Haien aurreikuspena eta xehetasunak proiektuaren planoetan jaso dira eta ondoren zehazten dira:

* Donostia modeloko edo antzeko 100 litroko bi kubetaz osatutako multzoa.
* 1,10 m-ko altuerako altzairu galbanizatuzko baranda, 50 mm Ø-ko eskudel bikoitzarekin, hormigoizko inpostaren gainean ainguratua.
* Guztira 1,00x1,00 m-ko neurriak dituzten txorkoak, clincker edo antzeko kanpoko zintarriekin. 40x40 cm-ko sare galbanizatua, 25 x 3 cm-ko pletinekin.
* "Iglu" motako edo antzeko gainazaleko edukiontziak, hondakinak gaika biltzeko, udal ereduaren arabera.
* Jolasen Urola ereduko bankua edo antzekoa.

## 6.9. Bide seinaleak:

Seinale horizontalak nahiz bertikalak, eremuko erabiltzaileen (oinezkoak eta ibilgailuak) bide segurtasuna bermatzeko irizpideari jarraiki egingo dira.

Bide markei buruzko Herri Lan eta Garraio Ministerioaren Errepideen 8.2-IC Arauaren zehaztapenak beteko dira eta udal zehaztapenei egokituko zaie. Horretarako, ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazioaren funtzionamenduaren planoa erantsi da.

- Erreien tartea: 10 cm-ko zabalerako lerro etena, 2 m-ko lerro betea eta 5,5 m-ko baoa.
- Zebrabideak: 50 cm-ko zabalera duten zerrendak.
- Pasatzen uzteko lerroa: 0,40 m-ko zabalerako lerro etena.
- STOP lerroa: 0,40 m-ko zabalerako lerro jarraitua.
- Gezien, letren eta ikurren inskripzioak: arauaren arabera.
- Gelditzeko debekua: 0,15 m-ko zabalerako lerro jarraitua zintarriaren ondoan.

Bide markak egitean aplikatu beharreko pinturak Errepideen Pleguan (PG 3/75) bi osagaiko pinturetarako erreflexio bide markei buruz zehaztutakoa bete beharko du.

Aukeratutako seinaleztapen bertikalaren nomenklatura bat dator Herri Lan eta Garraio Ministerioak argitaratutako Seinaleen Katalogoarekin, eta kontuan hartu da jarri beharreko seinaleen eredu zehatzak horri buruzko udal irizpideari erantzuten diola.

## 6.10. Berdeguneak eta landaketak:

Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA
Egiinbidea: jasota gera dadin agiri hau HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-jko 4.3 "Esklabak-Iturzulo" azpieremurako Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuaren espedienteari dagokiola. Alkatetzak 2021/09/28ko Dekretuz behin betiko onarpena eman zion.
Udalaren idazkariak

Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA

Eginbidea: jasota gera dadin agiri hau HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-jko 4.3 "Esklabak-Iturzulo" azpieremuaren Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuaren espedienteari dagokiola. Alkatetzaren 2021/09/28ko Dekretuz behin betiko onarpena eman zion.
Udalaren idazkariak



Urbanizazioaren landare tratamendua izango da zuhaitzak landatzea txorkoak dituzten bideetan, eta lorategi eremuetan zuhaitzak eta zuhaixkak landatuko dira eta soropila ezarriko da, batez ere.

Landareak hautatzeko, kontuan hartuko dira sortutako espazioa, kostua eta mantentzeko erraztasuna. Landare berriak ahal dela bertakoak izango dira, eta haiek nahiz proposaturiko lorategiek ordenantza orokorretan jasotzen diren gutxieneko baldintzak beteko dituzte. Hiri diseinuari eta haien xehetasunei dagokienez, Udalak eskatzen duena beteko da.

## 7. ERAIKUNTZA ETA ERAISTE HONDAKINEN KUDEAKETA (EEH)

Urbanizazio obretan sortzen diren hondakinei eta antolamenduz kanpo dauden eraikinak eraistean sortzen diren hondakinei dagokienez, honekin batera doa "VIII. eranskina_Eraikuntza eta eraiste hondakinak kudeatzeko azterketa". Bertan jaso dira sortuko den hondakin kopuruaren zenbatespena, hondakin horien bereizketa, biltegiaren aurreikuspena, norakoa, etab., Europako hondakinen zerrendan jasotakoa kontuan hartuta (MAM/304/2002 Agindua), eta ekainaren 26ko 112/2012 Errege Dekretuaren arabera.

Egin den azterketan ageri dira Baldintza Teknikoen Agiriko preskripzioak, kudeaketa eragiketei dagokienez. Aurreikusitako kostuaren balorazioa sartua dago urbanizazio proiektuaren aurrekontuetan.

## 8. IRISGARRITASUNARI BURUZKO ARAUDIA

Proiektu honetan kontuan hartu da Irisgarritasuna Sustatzeko 20/1997 Legearen 2. eta 3. artikuluetan eta 68/2000 Dekretuaren II. eranskinaren 2. artikuluan "Hiri-inguruneko irisgarritasunari buruzko baldintza teknikoak" ezarritakoa betetzen dela.

Era berean, otsailaren 1eko ETXEB/561/2010 Ministerio Aginduan xedatutakoa beteko da. Agindu horren bidez, espazio publiko urbanizatuetan sartzeko eta horiek erabiltzeko irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarrizko baldintzei buruzko dokumentu teknikoa garatzen da.

Irisgarritasunari buruzko Estatuko nahiz Autonomia Erkidegoko araudia aplikagarriak dira, eta xedapenen arteko osagarritasunik badago, biak aplikatuko dira. Diseinuan, egikaritzean,

kudeaketan edo beste arlo batzuetan kontraesanik izanez gero, Estatuko araudian xedatutakoa aplikatuko da.

Espazio publikoak (bide publikoak, espaloiak, plaza, etab.) eta hiri altzariek pertsona guztien irisgarritasuna bermatuko dute; proiektatutako urbanizazioak bide ematen du eraikin berrirako eta espazio publikoetarako sarbidea izateko ingurutik.

Oinezkoentzako ibilbideek, eraketari eta funtzionaltasunari dagokienez, ≥ 2,20 metroko altuera eta ≥ 2,00 metroko zabalera dituzte gutxienez. Luzetarako maldak % 6 baino txikiagoak dira, eta zeharkakoak, berriz, ≤ % 2,00-koak.

Lege horren II. eranskineko 3.11 artikuluan eskatutako elbarrientzako aparkaleku erreserba, hau da, 40 plaza edo zatiki bakoitzeko plaza bat erreserbatzea, bete egingo da proiektuan, bost aparkaleku plaza erreserbatu baitira.

## 9. OBREN KOSTUA

Egikaritze unitatea urbanizatzeko obren kostua **4.047.508,31** eurokoa da guztira (egikaritze materialerako).

Eta erreka agerian uzteko egikaritze materialaren aurrekontua **81.313,93** eurokoa da (egikaritze materialerako).

Horrek guztiak **4.128.822,24 euro** egiten ditu.

## 10. URBANIZAZIO OBRAK HARTZEA

Eraikitzeko lizentzia eskaerak azpieremu edo atari bakoitzerako planteatu ahal izango dira, edo batera, azpieremu edo atari baterako baino gehiagotarako, baina horrek ez du esan nahi, azken kasu horretan, obrak nahitaez aldi berean egin eta amaitu behar direnik. Nolanahi ere, lehenetsi egingo da haiekin lotutako urbanizazioa jasotzea eta azpieremu bakoitzerako lehen erabilerako lizentzia banan-banan ematea azpieremu bakoitzerako.

Kasu guztietan, segurtasun arrazoiak direla eta, azpifase bakoitzari lotutako urbanizazioaren entrega, erabiltzeko edo eskura jartzeko, haren harrera akta formalizatzearekin batera eta aldi berean gauzatuko. Akta hori bi alderdiek (Sustatzaileak eta Udalak) sinatuko dute.

Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA

**Eginbidea:** jasota gera dadin agiri hau HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-jko 4.3 "Esklabak-Iturzulo" azpieremurako Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuaren espedienteari dagokiola. Alkatetzak 2021/09/28ko Dekretuz behin betiko onarpena eman zion.
Udalaren idazkariak

Azpieremu bakoitzari lotutako urbanizazio obrak Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 198. artikuluan ezarritakoaren arabera jasoko dira.

## 11. KALITATEA KONTROLATZEKO PLANA

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailaren urriaren 22ko 238/1996 Dekretua betez, dagokion berariazko proiektua idatzi behar dute proiektu hau egin duten arkitektoekin zerikusirik ez duten teknikari eskudunek.

## 12. SEGURTASUN ETA OSASUN AZTERKETA

1627/1997 Errege Dekretuaren arabera, adierazten da, proiektu hau egin duten arkitektoekin zerikusirik ez duten teknikari eskudunek idatzi eta zuzenduko dutela Segurtasun eta Osasun Azterketa.

## 13. EGIKARITZEKO EPEAK ETA BERMEA

Obrak egiteko aurreikusitako egikaritze epeei dagokienez, Urbanizatzeko Jarduketa Programan adierazitakora jotzen da.

Berme epe gisa, URTE BAT nahikotzat jo da, obra fase bakoitza behin betiko jasotzen denetik hasita.

## 14. ERANTSITAKO DOKUMENTUAK

AZPEITIKO "A.A.I 4.3" Jarduketa Integratuko Eremuaren Urbanizazio Proiektu hau ondoko dokumentu erantsi hauek osatzen dute:

- I. ERANSKINA.- ARGAZKIA
- II. ERANSKINA.- SANEAMENDUA
- III. ERANSKINA.- ELEKTRIZITATEA
- IV. ERANSKINA.- ARGITERIA
- V. ERANSKINA.-DB-SI-5 JUSTIFIKAZIOA
- VI. ERANSKINA.- IRISGARRITASUNA. HIRIGINTZAKO OZTOPOAK KENTZEKO ARAUDIA BETEKO DELA JUSTIFIKATZEA
- VII. ERANSKINA.- ERAISTEAK

Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA

**Eginbidea:** jasota gera dadin agiri hau HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-jko 4.3 "Esklabak-Iturzulo" azpieremuko Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuaren espedienteari dagokiola. Alkatetzak 2021/09/28ko Dekretuz behin betiko onarpena eman zion.
Udalaren idazkariak

- VIII. ERANSKINA.- ERAIKUNTZA ETA ERAISTE HONDAKINAK (EEH) KUDEATZEARI BURUZKO AZTERKETAK
- IX. ERANSKINA.- AZTERKETA HIDRAULIKOA

Donostian, 2021eko martxoan

**Arkitektoak**

| Javier Corta Echaniz | Patxi Corta Echaniz | Javier Corta Martinez |
|---|---|---|

Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA

**Eginbidea**: jasota gera dadin agiri hau HAPO-ko "Arana ingurunea" 4. HE-jko 4.3 "Esklabak-Iturzulo" azpieremurako Urbanizazio proiektuaren Testu Bateratuaren espedienteari dagokiola. Alkatetzak 2021/09/28ko Dekretuz behin betiko onarpena eman zion.
Udalaren idazkariak